

## **HARETX BIHURTU ZIREN SORGINAK**

### *Anton Erkorekak Bermeon bildutako kondaira zaharra*

Atxurra baserriko gizon bat, askotan legez Bermeoko Basoetatik (herriko basoetatik) oinez zetorren. Hor bazegoen harizti haundi bat, haretx haundiz beteta.

Baina oraingo honetan, haretxak, edo urte askotan haretx bihurtuta zeuden sorginak, jantzan aurkitu zituen.

Arrapaladan hasi zen baten bat harrapatu guran, baina ezinezkoa gertatu zitzaion. Neka-neka eginda zegoenean esan zuen:

- Jesus!

Esan baino ez eta zuhaitz guztiak txalaparta handia atereaz joan egin ei ziren.

Ordutik aurrera ez ei dago haretxik alde horretan.

### **Anton Erkoreka**

Etnografia de Bermeo, 3

Leyendas, cuentos y supersticiones

Doniene Bilduma

Bilbao, 2000